María eta biok

Gidoia eta marrazkiak: Miguel Gallardo
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2014
Bi koloretan. Azal gogorra
64 orri. 17 x 24 cm. 12 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-15685-81-4

Abenduaren 5etik aurrera salgai

Aparta, gainerako guztiak bezala

María eta biok *albumak Kataluniako Komikiaren Sari Nazionala jaso zuen 2008an*

María eta biok obra garrantzitsua da, bai jorratzen duen gaiagatik –autismoa–, baita alabarekin duen harreman zoriontsua erakusteko Miguel Gallardok erabiltzen duen begirada sotil, sentibera eta jostariagatik ere. Obra esanguratsua da, katartikoa dudarik gabe, aurrerapauso bat komikigile katalanaren ibilbide luzean, eta horri esker Kataluniako Komikiaren Sari Nazionala eskuratu zuen.

Amaia Hervás haur eta gazteen psikiatra honela mintzo da liburuaz: “Autismoa duten umeekin diharduten irakasle, profesional eta gurasoek ondo dakite zein garrantzitsua den egoerak edo ideiak transmititzen dituzten irudi argi eta sintetikoak erabiltzea ume horiekin. Miguel Gallardo ohituta dago bere alaba Maríarekin irudi bidez komunikatzen, eta liburu honetan horixe konpartitu nahi du irakurleokin –gu María bagina bezala–, irudien bitartez argi uler dezagun bere mezu soil eta laburra. Maríaren, bere aitaren eta bere ingurukoen sentsazioak eta emozioak adierazten dituzten irudiz gainezka dago liburu hau. Miguelek aspaldi daki bere irudi zoragarriek María poztu eta lasaitu egiten dutela, mundu hau ulertzen laguntzen diotela, eta gurekin ere erabili nahi ditu, Maríaren emozioak –aitarekikoak, maite dituenekikoak– parteka ditzagun”.

“Maríaren eta bere aitaren opor-bidaiako emozioetan murgiltzen da irakurlea –azaltzen du Hervásek–. Bidaiak eguneroko egoerak islatzen ditu, baina protagonistentzat, autismoa duten umeen ehunka familientzat bezalaxe, zailtasun-zipriztinez beteriko abentura bat da; izan ere, gure inguru soziala ez da euren beharretara egokitzen, eta horren adibide ditugu Maríak bidaian aurkitzen dituen zenbait pertsona ez oso ulerberak”.

Komikian kontatzen den istorioan oinarriturik, *María y yo* dokumentala zuzendu zuen Félix Fernández de Castrok –gidoia ere berak egin zuen–, eta 2010ean estreinatu zen zinemetan.

“Gallardok eguneroko bizitzaren txikikeria aztoratzaile, amorragarri zein samur horiek azaltzen dizkigu gehien bat, alaba autista bat duenaren egunerokoa”.
Libération

“Baikortasun itsaskorra dario istorioari”.
El País

Miguel Gallardo (Lleida, 1955) Bartzelonan bizi da eta bertan egiten du lan. Ilustratzaile dihardu *La Vanguardia*n baita zenbait aldizkari nazional zein nazioartekotan ere, esaterako *Herald Tribune* eta *The New Yorker*. Bartzelonako Komiki Azokaren bi sari irabazi ditu, *Serra d’Or* sariaz gain, *¿Qué le pasa a este niño?* lanagatik (ahalmen-urritasunari buruzko gida, umeentzat). *Makoki* aldizkariaren sortzaileetako bat izana (Glénat-ek osorik argitaratu zuen 2003an, eta horren osagarri, *Fuga en la Modelo* argitaratu zuen La Cúpula-k 2009an), beste lan batzuk ere plazaratu ditu, besteak beste: *Informe G* (De Ponent, 2000), *Tres viajes* (De Ponent, 2006) eta *Un largo silencio* nobela grafikoa; azken lan horretan, Gerra Zibila islatzen du Gallardok bere aitaren oroitzapenen bidez, eta Astiberrik berrargitaratu zuen 2012an, egileak berak eguneratu ondoren.

María eta biok obrak (2007an kaleratu zuen lehen aldiz Astiberrik gaztelaniaz) berriro ekarri zuen komiki munduaren lehen lerroetara; bertan, María alabarekin –autismoa du– egindako bidaia bat kontatzen du, eta oso harrera ona izan zuen liburuak bai kritikarien baita irakurleen artean ere. Kataluniako Komikiaren Sari Nazionala lortu zuen 2008an.

Paco Rocarekin batera (*Zimurrak* lanaren egilea, 2008ko Komikiaren Sari Nazionala), *Emotional World Tour* (Astiberri, 2009) lana osatu zuen Gallardok; bidaia-koaderno horretan, *María eta biok* eta *Zimurrak* komikien ernatze lana gogoratzen dute marrazkigile biek, eta horrekin batera, bi liburuok aurkezteko urte eta erdiz Espainia osotik egin zituzten bidaietan bizi izandako pasadizo barregarriak kontatzen dituzte.

María Gallardo Las Palmasen bizi da, Kanaria Handian, eta 12 urte ditu; gaitasun aparta du ezagutu duen jende guztiaren izenak gogoratzeko, baita minutu gutxi batzuz bakarrik ezagutu dituenena ere.

Egile beraren beste obra batzuk:



Emotional World Tour
Paco Rocarekin
72 orri. 18 euro
ISBN: 978-84-96815-99-5



Un largo silencio
72 orri. 15 euro
ISBN: 978-84-15163-54-1

IRUDIAK

MARÍAK PRIMERAN PASATZEN DU, EZAGUTZEN DUEN JENDEAREN MARRAZKIAK EGITEN DIZKIODANEAN. ORAINGOAN PREST ETORRI NAIZ, ETA, KOADERNOAZ GAIN, BERE LAGUN ETA SENIDE GUZTIEN IRUDI SORTA BAT EKARRI DUT, PLASTIFIKATURIK. IZUGARRI MAITE DU JENDEA SEINALATU ETA HAIEN IZENAK ESATEA.



HORIEK DIRA MARÍAREN GELAKIDEAK KANARIETAN, ETA BERA PRINTZESA BAKARRA, MUTIL GUZTIEN ARTEAN. BERE JOLAS KUTUNENA, ETENGABE ERREPIKATZEA TALDE HORIEN LERROKADAK: IKASKIDEAK, IRAKASLEAK, IZEBA-OSABAK, LEHENGUSU-LEHENGUSINAK ETA ABAR.

AURPEGIERAK

MARÍAK BARRE EGITEN DUENEAN, INGURUAN DENA ARGITZEN DA, HARK KUTSATURIK.

LEHEN BEGIRATUAN BADIRUDI EZER GUTXI INTERESATZEN ZAIOLA, JAKIN-MINIK APENAS DUELA, BAINA NIK USTE DUT EZ DUGULA MARÍA ULERTZEN.
EZAGUTU DUEN JENDEAREN IZENAK ERREPIKATUZ (BATZUK JADA ZENDUAK), DENA BERE TOKIAN DAGOELA BAIEZTATZEN DU, ETA MUNDUA TOKI SEGURUA DELA.
MARÍAK JENDEARENGAN DUEN KONFIANTZA ITSU HORREN FALTA NABARITZEN DUT SARRITAN.

MARÍARI SO EGITEN DIOTENENGAN IKUSI NAHI EZ DITUDAN AURPEGIERAK